

IN VINO FABULA mahastiaz eta arnoaz...

Koldo Amestoy kondalariak,

asmatu, idatzi eta bakarlari gisa, kondatutako ikuskizuna
publiko helduari zuzendua – iraupena : 70 mn



Arnoaren munduan gaindi ibiliz, honen memorioak bere gogoan dauzkan kontu, kontakizun eta kantuek osatzen dute ikuskizun hau.

Tradizioa, mitologia eta literaturako idazkiekin jostatzen da kondalaria, asmatzeko bere istorio propioa eta hau, dantzan emateko bere baitako musikarekin batera...

Ardo onaren pareko ikuskizuna, oparo eta sendoa !

In Vino Fabula edo...

Nolaz, uholde handian hainbeste ur ikusirik, Noe mahastia landatu eta arno egiten hasi zen. Nolaz, pikondo itzalpetik pasatu ziren Satan, Bacchus, Dom Pérignon, Martin eta bere astoa, eta lehen mahats-biltzaileak.

Nolaz, Bixente etxeko-semeak dolarean sartu eta, atea hetsirik, sotokoa ideki zen Ardane etxekandere gaztea agertuz, berak egin arnoa dasta arazteko harro zegoela.

Nolaz, Jesus-Kristo eta Ezteiliarrek, Rabelais eta Gargantuak honen ardoa gozatu zuten, Sancho Panza, herriko erretoreak, eta beste frangok bezala, funtsean.

Eta nolaz, behin etorri zen, Johann eslobakiarra bere arnoaren sekretua ezagutarazi nahian.

In Vino Fabula, arnoaren istorio xume hau jadanik aurkeztua izan da ipuin festibal

batzuetan, bai eta Irulegiko sotoan, Madiran aldeko Vialla etxaldean, Jurançon-eko Arnoen Etxean, Arabako Errioxan, Aix-en-Provence aldeko Château de Vauclaire etxaldean , Zokoa/Ziburuko Egiategia sotoan, Donibane Lohitzuneko 2017.ko “Festi-Contes” jaialdian....

Cumulus vini, periculosus curae est.

Potenedun est cum moderatione !